

Mandelaren ametsa xenofobiatan ito da Hegoafrikan

Atzerritarren aurkako eraso gogorrek gertatu dira maiatzean Hegoafrikan, zehazki Johannesburgeko txabolategietan. Gobernuak salatu dute apartheidaren garaian bezala aurrerapenaren kontrakoek “hirugarren indarra” erabili dutela. Baina Hegoafrikako gizartean egonezina sakonagoa da.

GURE MITOAK GAINBEHERA DATOZ.

Apartheidaren ondoren egian eta bakean sendatzea, ortzadar-nazioa eta diktadura osteko demokrazia partiduanitza... hori guztia datorkigu hondora”. Diagnostiko etsitua egin dute *Pambazuka News* aldizkari elektronikoaren zuzendari diren Mukoma Wa Ngugi eta Firoze Manji-k. *Pambazuka News* honela definitzen du bere burua: “Asteroko foruma Afrikako justizia sozialerako” eta prestigiozko analisiak biltzen ditu.

Mundu osoak ikusi ditu Johannesburgeko irudi lazgarriak. Maiatzaren 11n hasi eta ondorengo egunetan, hiriburu inguruko txabolategietan atzerritarrei eraso egin zieten, 50 pertsona hil —hauetako batzuk bizirik kixkalita—, beste asko zauritu eta bortxatu, etxola eta saltoki txiki asko suntsitu, 25.000tik gora ihes egitera behartu nora-hara. Mendebaldeko askori bitxi egin zaio hori Mandelaren erresuman gertatu izana, baina tele-ikusle gehienek irudiak artxibatuko zituzten beren buruetako “Afrikarren ohiko gauzak” atalean.

Aldiz, Hegoafrikako Errepublikan bertan zirrara handia eragin dute gertakizunok. Hango komunikabide handietatik iristen diren erreakzioek ondorio politikoak aipatzen dituzte, Thabo Mbeki lehendakariarentzako dimisio eskeak eta beste. Baina gizarte mugimenduen inguruko komunikabideek plazaratzen dituzten analisi, iritzi eta

eztabaidek hegoafrikarren artean dagoen ezinegon oso sakonaren berri ematen dute.

Hegoafrikan lehenbizikoz hauteskunde libreak egin ziren urtean, 1994an, orduantxe gertatu zen Ruandako genozidioa: tutsi etniako milioi bat pertsona kalitu zituzten ordura arte bizilagun zituzten hutu etniakoek. Johannesburgeko gertakariak ez dute urrundik ere Ruandakoen tamainarik, baina egia da Nelson Mandela 1990ean presondegitik ateratzean inork ez zuela horrelakorik aurreikusiko, ez eta kalkulurik txarretan ere.

Pambazukako zuzendariek, hain zuzen, Mandelaren esanetara jo dute gertatzen ari dena esplikatzen. Mandelak aspaldi, 1964an espetxeratu zutenean, honela deskribatu zuen apartheid erregimenak lotuta bizi zen Hegoafrika: “Zuriek daukate munduko bizi mailarik onena, eta bitartean beltzak txirotasunean bizi dira. Afrikarren %80k itxaropenik gabe bizirauten dute, batzuetan erreserba agortuetan, non lurzoruak higadura eta gehiegizko ustiaketagatik ez baitie bizitzeko adina ematen. Afrikarren herena jornalari, maizter edo apopilo daude zurien etxaldeetan, Erdi Arokoa bezalako morrontzan. Beste heren bat hirietan bizi dira, gizarte eta ekonomia alorrean zurien antzeko ohi-turak garatu dituzte. Baina talde honetako afrikar gehienak ere txirotasunean bizi dira” *Pambazukako* idazlearen arabere-

Ezkerreko argazkian ageri den bide-ikurra Europan ez da ezagutzen: kaleko salmenta debekatuta dagoela abisatzen du. Johannesburgeko Soweto famatuan ateratako argazkia NYCviaRache delako batek dauka ikusgai Interneten. Eskubikoa kryyslee izenekoak egin eta sareratutako erretratua da, Sowetokoa hau ere, eta karrikan dagoen ileapaindegia erakusten du. Ekonomia informalak Hegoafrikan daukan tamainaren bi adibide dira. Lurrazalez Iberiar penintsula halako bi izanik, 44 milioi biztanle dauka herrialdeak. Beti erakarri ditu inguruko herri txiroagoetatik etorkin asko, gaur daukan bost edo sei milioietara iritsi arte. Hegoafrikako gehiengo beltzaren egoera ekonomikoa asko hondatu da azken urteotan, eta txabolategi batzuetan etorkinek ordaindu dute jendearen frustrazioa.

ra, beltzen arteko azken hauetako batzuk dira ANCK agintea hartu zuenetik urteotako garapen ekonomikoari etekina atera diotenak.

Horiek egon daitezke interesatuta xenofobia indartzen. Etorkinen eskulana beharrezkoa izan du Hegoafrikak urteotan. Apartheidaren garaian ere, zerbaiten jabe zirenak erasoago eta gainerako guztiak lehen bezain gaizki bizi diren gizarte batean, txiroen etsipena atzerritarren kontra bideratzea beti da agintearen irtenbide erraza. Europan ikusten ari denez.

Ngugi eta Manjiren iritzian, ANCKo eliteko agintariakitsu daude, txabolategietako dramak ez dituzte ezagutzen. Ziurrenik horietako batzuek Tanzania, Zimbabwe, Mozambique edo Angolan egon zirenean ere bertako txirotasun-erasoak ikusteko itsu egon zirelako. Eraso eta hilketak xenofoboan aurrean erreakzionatzen kosta egin zaio gobernuari. Aldiz, Hegoafrikan oso ugariak diren mugimendu sozialek egoera baretzen lan handia egin dute.

“Amakwerekwere” zikinok...

PASSOP (*People Against Suffering Suppression Oppression and Poverty*), COSATU sindikatua eta beste mugimendu batzuen artean maiatzaren 17an bertan manifestaldia antolatu zuten Alexandria eta Diepsloot-en gertatutako erasoak salatu eta egoera baretzeko. “Atzerritarrek ikaratuta daude, nazien



gariaian juduak zeuden moduan. Bidegabekeria hau gelditu beharra dago”, adierazi zuten ozenki. Beste mugimendu indartsu batek, *Social Movements Indaba* delakoak, auzo askotan bilkurak antolatu ditu maiatzean, honelako argudioekin: “Ohartu beharra dago gertakizunon jatorria afrikar askoren mixerian datzala, eta borrokatu behar dugula errealitate hau sortu duen kapitalismo neoliberalaldatzeko”.

Beste mugimendu indartsu bat da *Abahlali baseMjondolo*; euskaraz “Txaboletako Biztanleak” esango genuke. Durban hirian sortua, apartheidaren ondorengo txiroen mugimendurik sendoena da, milaka militante dauzka 30 auzotan lanean. Bere webgunean diotenez, “ekintza bat izan daiteke ilegala, baina pertsona ezin da ilegala izan”.

Abahlali taldearen idatzietako prosa xume eta argia da. Printzipio gezurtaezinez betea. “Zu auzo batean bizi bazara zu auzo horretakoa zara, eta auzo horretakoa bizilagun eta kamarada dituzu”. Edo aurrerago: “Kondenatzen ditugu Johannesburgen atzerrian jaiotakoen kontra egindako eraso, jipoi, bortxaketa eta hilketak. Ezker-eskubi borrokatuko gara hau ez dadin gertatu KwaZulu-Natal probintzian”.

Mugimenduaren gunean erraz irakur daitezke aspalditik egindako salaketa eta oharrak: txiroen haserre edozein aldetara lehertu daitekeela, kasu emateko, auzoak beteta daudela arratoiz, suteak daudela, komunik ez dagoela, jendea pilatzen dutela eremu berezietan, atzerritarrentzako eremu-

tan poliziak jokabide ustel, krudel eta arrazistak dauzkala...

“Ez beharrak eta ez zanpaketak ez dute justifikatzen pertsona batek beste erasotzea. Behartsu batek bere emaztea jo badu, familia txiro batek bere bizilagunak eraso baditu, arrestatu eta epailearen aurrera eramane behar dira. Baina hau Alexandrian gertatu bada eta ez Sandtonen, da han sufritzen ari direlako eta beren etorkizunaz larri daudelako”.

Abahlali kritikatzeko du Hegoafrikako Gobernua Zimbabwen eta Zambian jokatzeko ari delako amerikarrak eta ingelesak Kongon ari diren antzera, konpainia handien interesak defendatuz. Baina erakundeak auzoetan egiten du lan, eta bere agiriak auzotarren elkarbizitza bermatzeko ahaleginez daude idatzita: “Sufritzen ari diren zure bizilagunak ez itzazu zure etsai bihurtu”.

Lan zaila daukate erakundeok. Hegoafrikan azken urteotako hazkundearekin izugarri handitu da txiroen eta aberatsen arteko leizea. Horrelakoetan xenofobiak beti ematen du jokoa. Gure artean “txurria-noak”, “sudacas” edo “beurs” direnak, Hegoafrikan “amakwerekwere” dira. Abahlalikoek diote: “Serioski galdetu behar dugu ea zergatik dirua eta jende aberatsa libre ibili daitezkeen munduan barrena, eta aldez edonon behartsuek burdinazko hesiak aurkitzen dituzten, polizia ustel eta bortitzak, lekualdatzeko eta berriro etxeratzeko ilarak”. ■

www.argia.com/nethurbil.php
helbidean, gai honi buruzko informazio
gehiago eta Interneteko loturak.



**Produkturik onenak,
Zinkunegi Optikan**

Aukerarik zabalena
betaurreko graduatu,
ukipen-lente,
audiofono eta
eguzkitako
betaurrekoetan.

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani kalea - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL.: 943 420 624

K A L I T A T E A